# baikara

Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

Donostia · Gipuzkoa

Junio 2021eko Ekaina



## HONDALEA, Urteko kultur ekitaldia



### ESKOLA DIGITALA

Entrevista a Xabier Mendizabal, miembro de Euskal eskola Publikoa, gaur, bihar



### ACTUALIDAD

Eskola-jantokiak aztergai

# Ikasle
# Guraso
# Irakasle

# eskerrik asko!

Zuen laguntza, lankidetza eta konpromisoari esker
ikasturtea aurrera atera duzuelako.
**Guztiok elkarlanean Euskal Eskola Publikoaren alde!**

baikara
Gipuzkoako IGEen federazioa

# aurkibidea índice

## donostia

04-13




**p. 4 Aurten ere “Oporretan euskaraz”**

p.5 Proiektua: “Nor dabil basoan?”

p.6 HONDALEA. Entradas disponibles para el acontecimiento cultural del año

p.7 Uliako Interpretazio Zentroa, ezinbesteko hitzordua

p.8 Breves-Laburrak


## gipuzkoa

14-20




**p.9 Astigarraga DBH mugimendua inoiz baino biziagoa**

p.10-11 Entrevista a Xabier Mendizabal (miembro de Euskal Eskola Publikoa, gaur, bihar)

p.12-13 Euskal Eskola Publikoaren ikasturtea argazkietan

p.14-15 Eskola-jantokiak aztergai

p.16 HEIZEren IX. Jardunaldi Pedagogikoen kronika


DONOSTIA SAN SEBASTIÁN Hezkuntza Educación

## BAIKARA FEDERAZIOA

Es la Federación de Asociaciones de Madres y Padres (AMPAS) de los centros de la enseñanza pública no universitaria de Gipuzkoa. En la actualidad están asociadas a la Federación 156 AMPAS, lo que representa más del 93% del total de AMPAS de Gipuzkoa. Por ello BAIKARA es la representante y portavoz del colectivo mayoritario de madres y padres del alumnado de los centros públicos de Gipuzkoa, actuando como tal en las negociaciones y foros en los que se debate y deciden los diferentes aspectos que puedan afectar a la educación pública en Gipuzkoa.

Gipuzkoako ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako guraso elkarteen (IGEen) federazioa da. Gaur egun, 156 IGE dira Federazioko kide, hau da, Gipuzkoako IGEen %93 baino gehiago. Horregatik, BAIKARA da Gipuzkoako ikastetxe publikoetako ikasleen gurasoen ordezkari eta bozeramaile nagusia, eta hala jarduten du Gipuzkoako hezkuntza publikoan eragina izan dezaketen hainbat alderdi eztabaidatzen eta erabakitzen diren negoziazioetan eta eztabaidetan.

**www.baikara.org** **Baikaragurasoak** **@BaikaraF**


baikara Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

ARGITARATZAILEA: BAIKARA FEDERAZIOA
Baso-Txiki Kalea, 36, atzealdea. 20015 Donostia. Tfno 943327208. Fax. 943274977.
e-mail: baikara@baikara.eus / rosa@baikara.eus

Koordinatzailea: Rosa Izquierdo. Diseinua: Ane Galdos. Inprimatzailea: Comeco Gráfico. Lege gordailua: ISSN 1697-9109

# AURTEN ERE “OPORRETAN EUSKARAZ”

Donostiako daleko Euskara Zerbitzuak uztailean “Oporretan Euskaraz” udalekuak antolatuko ditu. Udako jarduera honen helburua haurren artean euskararen erabilera sustatzea da. Izena Internet bidez eman daiteke, www.donostiaeuskaraz .eus helbidean. Nolanahi ere, izena emateko inprimakia, behar bezala beteta, Udalaren Euskara Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu ahal izango da, Konstituzio plazako 2 behean, 9:00etatik 14:00etara.

Iaz bezala, Covid 19 pandemiaren ondorioz, Udaleko Euskara Zerbitzuak koloniak egoera berrira egokitu behar izan ditu, eta horrek aldatu egin ditu haien ezaugarri eta baldintza batzuk. Aldaketa horiek ezinbestekoak izan dira haurren, begiraleen eta familien osasuna bermatu eta arriskuan ez jartzeko.




**JARDUERAREN INFORMAZIO OROKORRA**

- **Data:** uztailaren 5etik 30era
- **Txanda bakarra, 4 astekoa**
- **Ordutegia:** 9:00etatik 13:30era
- **Haurtzaindegi zerbitzua:** 8:30etik 9:00etara
- **Adina:** 5-11 urte (2010 eta 2016 bitartean jaiotakoak)
- **Familia motaren araberako kuotak:**

  -Kuota arrunta: 164,06 €

  -Familia ugariak edo guraso bakarreko familiak: 123,04 €

  -Familia ugari bereziak: 82,03 €

  -Gizarte-laguntza jasotzen duten familiak: 16,40 €

Unean-unean indarra duten osasun irizpideak zorrotz beteko dira.

**Informazio gehiago**
**Telefonoa:** 010 / 943 483750
**Emaila:** udala_euskara@donostia.eus







# PROIEKTUA: “NOR DABIL BASOAN?”

Gaur egungo mendebaldeko gizartean, eta batez ere hiri inguruneetan, haustura nabarmena daukagu natura eta gizakiaren artean. Gizakia naturaren gainetik dagoenaren eta naturaren kontrakoa denaren sinesmena gailendu zaigu. Espazioen artifizizlizazioa eta aisialdiaren digitalizazioak are gehiago urrundu gaitu espazio naturaletatik.

Horregatik, proiektu honen oinarrian Donostiako eremu naturaletara bisita gidatuak egongo dira. Bisita hauetan zehar gure inguruko mendiak eta bertako ekosistemak ezagutzeko, bioaniztasunaren inguruan pentsatzeko eta gure kontsumo eta aisialdi ohituren inguruko hausnarketa kritikoa egiteko aukera egongo da.

Bisita hauek Donostiako ikastetxe, Aisialdi Talde edota elkarteei eskaintzeko pentsatuta daude. Ordu eta erdiko iraupena edukiko dute eta saio bakoitzeko gehienez 30 parte hartzaile izango dira, 3 urtetatik 16 urtetara.

Talde ezberdinak osatuko dira, aurrerago “Taldeen izaera” atalean azalduko den bezala. Tailerrak egiteko pertsonak elkartu ahala, talde bakoitzaren jarduera zein auzotan garatuko den erabakiko da. Hiru talde mota aurreikusi dira:

- **Familia irteera:** 3-9 urte bitarteko haurrak, bakoitza guraso batez lagunduta.

**-Aisialdi taldea:** Antolatutako taldea, begiraleak barne. 6-16 urte bitartekoentzako.

**-Eskola irteera:** LH-ko ikasleentzako irteera, 6 12 urte.









# HONDALEA. ENTRADAS DISPONIBLES PARA EL ACONTECIMIENTO CULTURAL DEL AÑO




La obra Hondalea, de la artista donostiarra Cristina Iglesias, ubicada en la isla de Santa Clara, se abrió al público el 5 de junio, sábado, Día Mundial del Medio Ambiente. A partir de ese día se podrá acudir a la isla y conocer de primera mano la instalación Hondalea, de cualquiera de las formas que se indica a continuación:



### VISITAS

Del 5 de junio al 30 de septiembre. Entradas disponibles en Hondalea.eus. Visitas gratuitas, a excepción del barco, si se escoge este medio de transporte para acudir a la isla y si se opta por el servicio de motoras, deberá abonarse en el momento y en el propio muelle. Información sobre precios y horarios: www.motorasdelaisla.com.

### VISITAS GUIADAS

Del 1 al 31 de octubre. Entradas disponibles a partir del 5 de junio en Hondalea.eus. Coste de la visita 30 euros por persona. Esta opción permite visitar de forma guiada la obra y su entorno, e incluye una travesía comentada a través de la bahía de La Concha, un itinerario guiado por la isla para conocer en detalle sus activos naturales y el acceso a Hondalea.

### VISITAS ESCOLARES Y GRUPOS SOCIOCULTURALES

Del 15 de septiembre al 31 de octubre. Reservas disponibles a partir del 5 de junio en www.cristinaenea.eus. La Isla de Santa Clara y la obra Hondalea suponen un marco inmejorable para el desarrollo de actividades didácticas y de educación ambiental, garantizando unos criterios de especial cuidado con el entorno, por lo que estos colectivos organizados tienen su propia tipología de visita a la isla y a Hondalea, enmarcada en la amplia oferta educativa que ofrece Fundación Cristina Enea. Esta oferta educativa cuenta con itinerarios pedagógicos dirigidos a los diferentes ciclos educativos, así como visitas guiadas para grupos organizados de diferentes tipologías. Las actividades son gratuitas, excepto el traslado en barco a la isla (para los grupos en riesgo de exclusión social Fundación La Caixa ofrece becas de transporte; consultar al realizar la reserva).






# ULIAKO INTERPRETAZIO ZENTROA, EZINBESTEKO HITZORDUA

Uliako Interpretazio Zentroak jarduera didaktikoen eta kulturalen programa bat du: tailer didaktikoak, Ulia mendiko ibilbideak, bisita gidatuak ikastetxean, proiekzioak, aldi baterako erakusketak, etab. Programa horretan, diseinuan parte hartu duten talde ekologisten, kulturalen eta sozialen ekarpenak jasotzen dira. Zentroak gai hauek jorratzen ditu: ingurune fisikoa, Uliako arrokak eta lurzoruak; flora eta fauna; itsas ekosistemak; historia, ondarea eta paisaiaren eraldaketa kulturala. Aipaturiko esparruak lantzeko, zentroak baliabide didaktiko hauek ditu:

-Erakusketa iraunkorrerako gela
-Hitzaldiak eskaintzeko erabilera anitzeko gela
-Tailer didaktikoei eskainitako gela



Era berean, zentroak baratze ekologikoa ere badu ondoan, uren birziklaketa erraztuko duen sistemaz hornitua, bai eta hainbat konpostagailu ere, non tailer esperimentalak burutuko diren. Gainera, baratzetik gertu, Aranzadi Zientzia Elkartearekin elkarlanean eraikitako putzu artifizial bat dago, hezeguneei lotutako ekosistemetan bizi den fauna eta flora sustatzeko, bai eta ikastetxeetako ikasleekin eta Interpretazio Zentroa bisitatzen dutern pertsonekin jarduera didaktikoak egiteko.



**SARRERA DOAKOA DA.**

**HELBIDEA ETA HARREMANAK**
Ulia pasealekua 311
20013 Donostia
**T:** 618 674 655

**E:** uliazentroa@donostia.eus

**Fb:** Ulia Interpretazio Zentroa

**ORDUTEGIA**
**Udako ordutegia (ekainaren 21etik irailaren 11ra):**
asteartetik igandera 11:00-14:00 / 17:00-20:00

**Neguko ordutegia (irailaren 12tik ekainaren 20ra):**
larunbat eta igandetan 11:00-14:00

**EKAINAK 19 DE JUNIO 12:00-13:30**

**PINPILIPAUXEN BILA**

Orokorrean gehiago erakarri izan gaituzte tamaina handiagoko animaliek, hegazti edo ugaztunek adibidez, baina gero eta argiago daukagu gure inguruko xomorrotxoek ekosistema batean duten garrantzia, eta horregatik arreta beraiengan jartzeak merezi du. Hasteko, gure inguruko dotoreenak aukeratu ditugu: pinpilinpauxak. Zerynthia elkarteko kideek, haiei buruzko bitxikeriak azalduko dizkigute eta baita beraien ikerketarako erabiltzen dituzten tresnak ere, eta beraien laguntzarekin pinpilinpauxa eta beraien arrak bertatik bertara ikusten saiatuko gara.

# BREVES / LABURRAK

## ARTEA ETA GIZA ESKUBIDEAK, HAUR ETA GAZTEEN 17. EKITALDIA



Donostiako Udalak, Giza Eskubideen arloaren bitartez, Artearen eta Giza Eskubideen Haur eta Gazteen 17. ekitaldiko sariak banatu zituen joan den apirilaren 25ean. Ekitaldi honetan, haurrek ahalik eta osasun-maila handienaz gozatzeko eta mediku zerbitzuak eskuratzeko duten eskubideari buruz hausnartzeko eta ideiak erakusteko deia egin zaie pertsonei, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 24.1 artikuluan jasotzen den bezala. Aurten parte hartu duten 1.940 haur eta gaztek baino gehiagok 1.420 lan aurkeztu dituzte, banaka eta taldeka, horma-irudien bidez, eta beren gogoetak hainbat teknikarekin egindako irudietan islatu dituzte.

Guztira, hamazazpi ikastetxek, egoitza batek, haurtxoko batek, lau arte akademiak eta bere kauz aurkeztu diren hamazortzi pertsonak parte hartu dute.

## UDAKO ESKAINTZA BEREZIA HAURTXOKOETAN




Aiete, Altza, Egia eta Gros haurtxokoek uztailean irekiko dituzte ateak

Helburua da haurrek aisialdiaz modu dibertigarri eta seguruan gozatzeko aukera izatea, eta, horrez gain, kovidak haurrengan izan dituen ondorioak arintzen laguntzea, eta gurasoen arteko bateragarritasunean laguntzea.

2 hamabostaldi eskainiko dira:
-1. txanda: 1etik 15era
-2. txanda: uztailaren 16tik 30era

Ordutegiari dagokionez, goizeko 9:00etatik 14:00etara izango da eskaintza. Eta jarduera-eskaintza zabala eskainiko da (psikiatria, hondartza, irteerak, etab.) hh5etik lh5era bitarteko haurrentzat.

Izena emateko, Haurtxoko bakoitzaren telefonora deitu beharko da, ordutegi honetan: marti-larunbata, 17:00-19:30)

## 32. KOLDO MITXELENA LITERATURA LEHIAKETA



Edizio honetan 24 lan saritu dira eta 53 izan dira epaimahaiaren aipamen berezia jaso dutenak. Aurtengo parte-hartzea oso arrakastatsua izan da, 1.481 lan aurkeztu baitira, 2020an baino 237 gehiago eta duela bi urte baino 400 gehiago. Lehiaketak berrikuntza txiki bat ekarri zuen: web komikiaren modalitatea 14 eta 18 urte bitarteko gaztetxoentzat. Saritutako 24 lanak (6 komiki, web komiki 1, 2 olerki, 6 ipuin, 5 bertso eta 4 mikroipuin) liburuxka birtual batean daude argitaratuta. Epaimahaiaren aipamen berezien zerrenda ere argitaratu da web orri honetan: Iñaki Martinarena "Mattin" komiki-marrazkilaria, Beñat Gaztelumendi bertsolaria eta Yolanda Arrieta, Ana Malagon, Inazio Mujika eta Arantxa Urretabizkaia idazleak; 53 lan, zehazki. Aurten, bestalde, hiriko 25 ikastetxetako ikasleek hartu dute parte.

## "RECORRIDOS DE LA MEMORIA"

El Departamento de Derechos Humanos del Ayuntamiento donostiarra ha puesto en marcha, un año más, los "Recorridos de la Memoria Histórica", especialmente dirigidos a escolares. Se trata de visitas guiadas para que los escolares conozcan una parte de la historia de San Sebastián. Son recorridos al aire libre y se visitan aquellos lugares significativos relacionados con el golpe de estado de 1936 y la posterior dictadura franquista. Durante la visita se han incluido diversas dinámicas prácticas para, de forma cooperativa, favorecer la participación activa del grupo y fomentar el conocimiento. El recorrido está diseñado para el alumnado de 4º de ESO y 2º de Bachillerato. Además del recorrido, se ha diseñado una unidad didáctica para trabajar el tema en clase.






# ASTIGARRAGA DBH MUGIMENDUA INOIZ BAINO BIZIAGOA



Astigarragan bigarren hezkuntza publikoa eta kalitatezkoa eskatzeko sortu den herritarren plataformak hiru urte baino gehiagoko ibilbidea du, baina herrian zerbitzu publiko hori lortzeko herritarren aldarrikapena askoz zaharragoa da.

Herritar askok jarri dute mahai gainean azken urteotan Astigarragan bigarren hezkuntzako institutu publiko bat izateko beharra. Izan ere, duela hamar urte baino gehiago udalerri horretako hazkunde demografikoaren aurreikuspenei buruz erabili ziren datuen arabera, argi zegoen urte batzuk geroago arazo larria izango zela udalerrian gero eta ikasle gehiagoren eskolatzea bermatzeko.

Azpimarratu behar da herritarren mobilizazioa funtsezkoa dela oraindik ere kalitatezko zerbitzu publikoak, irisgarriak eta unibertsalak zaindu eta bermatzeko, erakundeek proiektu horiek "beren agendan" jar ditzaten. Gaur egun, hori lortu da, eta parte hartzen duten erakundeen lankidetza eta elkarrizketarako prestasuna martxan daude. Hain zuzen, aurtengo maiatzaren 3an, Astigarragako Udala eta DBH Orain plataforma Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean agertu ziren.

Gasteizko Parlamentuko Batzordeko kide guztiak ados agertu ziren Astigarragan DBHko ikastetxe bat eraikitzeko beharrarekin eta Hezkuntza Sailak orubea lagatzeko prozedurari ekin eta proiektua egiteko urratsak ematearekin.




Horrelako espedienteen epeak luzeak izan arren, zailena egina dagoela eta Hezkuntza Departamentuaren zeregina dela adierazi dute.

# “LA EVOLUCIÓN DEL SISTEMA EDUCATIVO VASCO ESTÁ LLENA DE CLAROSCUROS”



**Entrevista a**
**XABIER MENDIZABAL**
Miembro de Euskal Eskola Publikoa, gaur, bihar

**1.- ¿Qué destacaría como elementos positivos y negativos de la evolución del sistema educativo vasco en los últimos 25 años?**

La evolución del sistema educativo vasco durante ese tiempo está llena de claroscuros.

Aunque nuestro sistema educativo muestra buenos resultados, tanto en el inicio de la escolarización como al final de la escolarización obligatoria y en la tasa de titulación terciaria (Universidad, Formación Profesional y otros estudios superiores), en cambio no supera los objetivos europeos en dos aspectos importantes: nivel competencial y educación permanente.

Sin olvidar el trabajo que han realizado otras redes, sería inimaginable el grado de desarrollo que ha tenido el aprendizaje del euskara y la cultura vasca sin el compromiso e implicación demostrados por la Escuela Pública Vasca, tanto porque es la red que más alumnos y alumnas está alfabetizando, como por la complejidad que está suponiendo trabajar con alumnado diverso.

Seguramente, los indicadores más negativos que muestra nuestro sistema educativo son los relativos a las **desigualdades entre redes y entre centros a la hora de escolarizar al alumnado vulnerable y de origen extranjero**. Esta situación estructural está afectando seriamente a la equidad del sistema, a la igualdad de oportunidades y a la calidad de la educación. La dualidad público-privada radical de nuestro sistema, que no tiene parangón en Europa, el modelo de concertación sin responsabilidad social a cambio, el uso sin límite de la libre elección de centro, el desinterés de la Administración Educativa para potenciar el valor social de la Escuela Pública Vasca, entre otros, son sin duda aspectos que han contribuido a que estemos en la situación actual.

**2.-Teniendo en cuenta que el Gobierno vasco ha previsto una nueva Ley de Educación para el año 2023, ¿cuáles son los aspectos prioritarios que debe abordar este cambio normativo.**

El primer aspecto sensible que habría que cuidar con inteligencia y transparencia sería el de la participación de la comunidad. Los procesos que ha habido previamente como Heziberri para trabajar los contenidos de la ley, y alcanzar los consensos necesarios para asegurar un marco regulador de la educación vasca estable, nos han enseñado que los debates a nivel de personas expertas o de las cúpulas de los agentes educativos han sido insuficientes para alcanzar los objetivos antes señalados. **Por ello, creo que ha llegado la hora de abrir el debate a la comunidad, poniendo todo nuestro conocimiento e inteligencia en el diseño de un proceso de participación y consulta que empodere a la ciudadanía como agente directamente interesado en la construcción de un marco educativo que favorezca la cohesión y justicia social**. Es hora de demostrar liderazgo político para que los objetivos de bien común vayan anteponiéndose a los intereses particulares.

El debate para avanzar en la definición de un marco para la educación vasca debe ser una oportunidad para alcanzar un doble objetivo: resolver las desigualdades y problemas estructurales que aquejan a nuestro sistema, y mejorar la calidad de la educación de todo el alumnado. El objetivo estratégico que debe propiciar la ley, es convertir a la educación vasca en una referencia estatal e internacional en excelencia en equidad, aprendizaje inclusivo, en el que todos los centros contribuyen de forma equitativa a la cohesión social, que tiene un profesorado altamente cualificado y formado, un modelo de gobernanza y participación descentralizado, etc. Esto supone cambiar el statu quo actual basado en una concepción neoliberal de cuasimercado y de gestión vertical de la educación.

**3.-El modelo educativo vasco está siendo cuestionado por ser uno de los sistemas educativos con mayor índice de segregación escolar. ¿Cuáles son los factores que propician la segregación y qué medidas debería tomar la administración para corregir esta situación?**

Son numerosos los informes del Consejo Escolar del Euskadi, de investigaciones, propuestas y publicaciones de entidades y agentes educativo que han hecho públicas sus propuestas para poner solución a esta lacra social y educativa. Entre ellas quiero recordar la Iniciativa Legislativa Parlamentaria(ILP) de Zubiak Eraikiz (/www.ilpeskolainklusiboa.eus), que fue rechazada en sede parlamentaria, creando una gran desconfianza sobre la política educativa de la C.A.V.

Desde el punto vista del interés de la escuela pública es necesario hacer referencia a varios temas muy sensibles con esta cuestión que podrían contribuir a su solución progresiva. Uno de ellos es la **necesidad urgente de reformar el Mapa Escolar, para planificar de forma equilibrada la oferta, los itinerarios y las plazas escolares**

**y afrontar el descenso de la matriculación de forma organizada y equitativa.** Del mismo modo, el actual modelo de escolarización debe ser reformado para asegurar transparencia, evitar malas prácticas y propiciar contextos escolares equilibrados e inclusivos. **Es urgente eliminar los centros de alta concentración de alumnado vulnerable.**

Finalmente, me gustaría señalar la importancia de que los fondos públicos se destinen a incentivar principalmente proyectos educativos de centro que contribuyen a la inclusión de alumnado pobre y de origen extranjero, y que se retire esta financiación a los centros concertados que buscan la selección social y la escolarización diferenciada por sexo.

**4.-La Escuela Pública Vasca en sus reflexiones incide en la necesidad de construir un sistema educativo vasco basado en la justicia social.**

La Escuela Pública Vasca a través de su iniciativa "Euskal Eskola Publikoa, gaur, bihar" viene trabajando en el proyecto Euskal Eskola Publikoa sistemaren ardatza, que persigue el objetivo estratégico de convertir a la escuela pública en un proyecto atractivo para la mayoría de las familias de este país.

Nuestra apuesta está en contribuir a generar un modelo educativo hegemónico que no deje atrás a nadie, construyendo un sistema equilibrado desde la perspectiva de la justicia educativa y la cohesión social. Nuestra reflexión y nuestras propuestas tratan de dar salida al dilema de seguir con una educación reproductora de las desigualdades de origen, o apostar por una educación compensadora e integradora de la diversidad. Por ello decimos con claridad: **No a una ley de educación reproductora del modelo actual, una ley que perpetúe las diferencias intergeneracionales.**

En este empeño, **la Escuela Pública Vasca tiene la vocación de convertirse en la opción educativa mayoritaria que desarrolle un aprendizaje de transformación social.**

Creemos que ha llegado la hora de plantearle a la ciudadanía vasca las ventajas sociales y económicas que tendría un sistema educativo construido desde los principios y no desde los intereses como el actual. Son numerosos los organismos internacionales (Save the Children, la Unesco, incluso la OCDE) que nos señalan las ventajas que supone para la cohesión social, construir sistemas educativos eficaces en la reducción temprana de las desigualdades de origen desde los primeros años de la escolaridad. Queremos ser coherentes con lo que señala la investigación educativa.

**5.-Las evaluaciones externas señalan que el sistema educativo vasco "no progresa adecuadamente", y los indicadores apuntan hacia un estancamiento y en algunos casos empeoramiento de los resultados en competencia científica y en comprensión lectora. ¿Qué medidas se deben de tomar para reconducir esta situación?.**

En este tema coincido con aquellos que señalan que Euskadi gasta mucho en educación, pero de manera ineficaz. **Los datos señalan que el sistema educativo vasco se encuentra en una fase de estancamiento que viene generando problemas de carácter estructural que hasta el momento no han podido ser atajados con eficacia.** Entre otros retos estructurales que tiene nuestro sistema y que señalan diversos informes (C.E.E. y fundación ISEAK entre otros) he seleccionado algunos que me generan especial preocupación: el problema estructural de **la alta tasa de repetición, las enormes diferencias entre los resultados entre alumnado no vulnerable y vulnerable, y el reto del aprendizaje en euskara y del euskara.** En estos indicadores el sistema educativo está mostrándose vulnerable e incapaz de reducir las desigualdades de origen.

Es preocupante porque además es una tendencia creciente que el 8 % del alumnado haya repetido en algún curso entre 1º a 4º de Primaria, y que cuando llega a secundaria la proporción sube al 12,3 % (en la red pública la situación es aún más acuciante). Y como indican los datos, muchos de estos alumnos y alumnas volverán a repetir en la ESO.

En competencia Matemática en PISA 2018 la diferencia de puntuación entre alumnado nativo e inmigrante en el País Vasco era la mayor entre todas las CCAA y el doble que la media de la OCDE.

El sistema de modelos lingüísticos hace tiempo que está agotado y que **los problemas de rendimiento que tiene nuestro sistema educativo se van trasladando al modelo D.** Las situaciones de segregación, los malos resultados en la competencia lingüística en euskara, la disminución en el uso cotidiano del euskara por parte de los jóvenes, la insuficiencia de los recursos para actividades extraescolares en euskara, hace que nos encontremos ante un importante problema sistémico y estructural.

Antes la magnitud de estos retos, me viene preocupando desde hace tiempo, que no haya habido valentía y liderazgo político para abordar los cambios estructurales que eran necesarios introducir.

Desde mi humilde punto de vista, para responder con eficacia a estos retos del sistema, creo que es preciso actuar simultáneamente sobre diferentes aspectos nucleares y sensibles del sistema tanto en el ámbito pedagógico, modelo de planificación y escolarización, sistema de financiación para la contribución a la equidad e inclusión, marco de autonomía y participación comunitaria, formación docente e investigación, educación formal e informal, etc.

La escuela pública a través de su proyecto Euskal Eskola Publikoa, gaur, bihar ya ha hecho públicas sus propuestas; ahora seguramente falte lo más importante, y es que sean tenidas en cuenta por las los representantes políticos.

# 20/21

## Euskal Eskola Publikoaren ikasturtea argazkietan

baikara

Gipuzkoako IGEen federazioa



Urola Kostako ikastetxe publikoetako programazio alfabetatze proiektuak bikaintasun-ziurtagiria jaso du




Luzaro ikastetxeak Zientziaren Astea ospatu du



Akordioa guraso elkarteekin Lasarte-Orian euskararen erabilera indartzeko



Gainzurik osasun arloko informazioari buruzko proiektu pilotu batean parte hartuko du



Elizalde Herri Eskolak ‘Transpatioa’ proiektua aurkeztuko du



Baratza IkasgeLab proiektu berrian parte hartzeko deialdia (Orokieta)



Errusiarekin irrati-harremanak Elgoibarko Herri Eskolatik



Jolastoki berria aurkeztu du Getariako Iturzaeta Herri Eskolak



Ordiziako Oianguren BHIk kalitateko zigilu europarra lortu du eTwinning proiektuarekin



50/50 proiektuak Oarsoaldeko 6 ikastetxe saritu ditu eraginkortasun energetikoari laguntzeagatik



Street artea iritsi da Fleming Herri Eskolara



Orioko Zaragueta Herri Eskolako patioak irudia aldatuz hasi du ikasturtea



“Eskolara oinez” proiektua Arrasateko Herri Eskolara itzuli da



Kurtzebarri Eskolak produktu ekologikoen postua jarri du Aretxabaletako azoka txikian



Hamaiketakoa orekatuz Ordiziko Urdaneta eskolan



Nesken bokazio zientifiko-teknologikoa sustatzen duen proiektu aitzindaria

BIDALI ZURE BERRIAK BAIKARA@BAIKARA.EUS HELBIDERA



# ESKOLA-JANTOKIAK AZTERGAI

Gure Platera, Gure Platera ekimenak eskola-jantokia eraldatzeko ekimenen topaketa bat egin zuen martxoaren 27an, egungo egoerari buruzko informazioa trukatzeko eta ideiak, erronkak, aukerak eta energiak partekatzeko topaketa bat egiteko.

Topaketa on line burutu zen, eskolako jantokiaren eredua aldatzeko inplikatuak dauden edo horretarako asmoa duten pertsona edo taldeei zuzenduta. 75 parte-hartzaile baino gehiago izan ziren, besteak beste, 40 hezkuntza-komunitatetik gorako pertsonak (guraso-elkarteak, familiak, zuzendaritzak, jantokietako langileak), udalak, kontsumo-kooperatibak, nekazaritza-ekimenak, katerin-enpresak, sindikatuak eta alderdi politikoak. Online topaketan Gipuzkoako ikastetxe hauek parte hartu zuten: Astigarraga Herri eskola, Tolosako Samaniego, Zarauzko Orokieta, Bergarako S.M.Agirre, Aretxabaletako Kurtzebarri, Oiartzungo Elizalde, Beasaingo Murumendi eta Hernaniko Ereñotzu.

Gure Platera Gure Aukera ekimenak, 30 kolektibo sozial, sindikal eta hezitzailez osatuak, sei urte baino gehiago daramatza eskola-jantoki osasuntsuago, hurbilago, bidezkoago eta hezigarriago batzuen alde lanean, eta egunetik egunera indar sozial handiagoa du, eskola-elikadura osasuntsu eta iraunkorrarekiko kezka gero eta gehiago agertzen baita agenda politiko, mediatiko eta sozialean. Asko izan dira azken urteotan gai honek izan dituen kalteak, iruzurragatik ikerketa batzordetik hasi eta Eusko Legebiltzarraren 2019ko urriko akordiora arte. Akordio horren arabera, eskola-jantokien kudeaketa zuzeneko sistemak aldaketak eta hobekuntzak behar ditu esleipen, gardentasun- eta kontrol-prozeduretan. Akordio horretan, Eusko Legebiltzarrak sistema osagarri baten oinarriak zehazteko ere eskatu zion Eusko Jaurlaritzari, kudeaketa berritzaile eta deszentralizatuaren alde egiten duten ikastetxeek aukera bideragarriak izan ditzaten. Aldi berean, hala eskatzen zuten ikastetxeetan sukaldeak eraikitzeko eskatu zion, baita informazio-prozesu bat ezartzeko ere, eskola-jantokien zerbitzuaren kontratazio-pleguen oinarri tekniko berriak kontrastatzeko eta, horrekin guztiarekin, indarrean dagoen araudia berridazteko.



## PLEGU BERRIAK

Urrian EAEko ikastetxe publikoetako jantokiak kudeatzeko plegu berriak argitaratu ziren. Agiri horiek errekurritu egin zituzten katerin-enpresek, aurrekontu-arrazoi batengatik, eta laster berriro argitaratu beharko lirateke aurrekontu handiagoarekin.

## KATERIN-ENPRESA HANDIEN EREDU ALTERNATIBOA

Lau esperientzia pilotuek (Markina, Laukariz, Urduña eta Gernika) esparru juridiko egonkorra eskatu diote Hezkuntza Sailari. Laster izatea espero dugu, ikastetxe gehiagok jarrai dezaten eredu hau.

## SUKALDEAK EGITEA

Pixkanaka, Hezkuntza Sailak gure eskoletako sukaldeak berreskuratzea lortzen ari gara. Hartutako konpromisoen jarraipena egiten ari gara, eta laster kanpaina bat jarriko dugu abian ikastetxe gehiagok oinarrizko instalazio hori izan dezaten, nahi izanez gero, elikagaien kalitate hobea lortzeko.

## LANTALDEAK

Ondoren, hiru lantalde sortu genituen, eskolako jantokirako alternatibak bilatzeko orduan aurrez aurre ditugun esperientziak, zalantzak eta arazoak partekatzeko. Azken batean, informazioa trukatzeko eta sinergiak eraikitzeko lekua izan da Sarea Sortzen.

Azkenik, Jan eta ikasi, eskolatik hasi gida interaktiboa (laster eskuragarri) aurkeztu genuen, Bidezko Elikadurak eta EHIGEk, Sorkin eta proiektu pilotuen ordezkarien laguntzarekin, egindakoa. Gidak gure jantokia osasuntsuago, hezigarriago, hurbilago, agroekologikoago eta bidezkoago bihurtzeko jarraibideak, ideiak eta orientabideak biltzen ditu.



# HEIZEREN IX. JARDUNALDI PEDAGOGIKOEN KRONIKA



HEIZEk "Euskal Eskola Publikoa haratago begira" IX. Jardunaldi Pedagogikoak egin zituen maiatzaren 6an, online. Hauek izango dira garatuko diren kontzeptu-ardatz nagusiak:

– **Gizartea:** Gizarte-kohesiorako eta gizarte-justiziarako hezkuntza-sistema eraikitzeko gizarte eta hezkuntza-erronkak.

– **Diagnostikoa:** Euskal hezkuntza-sistemaren ekitateari eta bikaintasunari eragiten dieten egiturazko arazoak.

– **Ikerketa:** Euskal hezkuntza-sistemaren errendimenduaren bilakaera.

– **Eskolatzea:** Eredu segregatzaileak eta ez-segregatzaileak, eta eskola-postuen plangintza.

– **Hobekuntza:** Euskal hezkuntza-sistemaren emaitzak hobetzea – zailtzen duten arrazoiak eta euskal eskola publikoaren kalitaterako proiektu estrategikoa identifikatzea.

– **Eskola curriculuma eta euskara:** Bizikidetza kulturala eta bizitzarako etengabeko ikaskuntza.

– **Deszentralizazioa:** Udalerrien funtzioa euskal hezkuntza-erreforman.

– **Gobernantza berria:** Euskal eskola publikoaren parte-hartze komunitarioaren eta kudeaketa-autonomiaren eredua.

– **Ziurgabetasuna eta statu quo berria:** Publikoaren balio soziala eta euskal eskola publikoa sistemaren ardatz gisa.

**Euskal Eskola Publikoa Gaur Bihar** behatokiaren "Beste hezkuntza bat ahal da" ponentziak emango die hasiera jardunaldiei. Besteak beste, galdera hauei erantzun zen: zeintzuk dira EAEko hezkuntza-sistemaren erronkak?, zergatik eragiten ditu desberdintasunak hezkuntza-sistema dual publiko-pribatuak?, zein da hezkuntza-sistema kohesionatuago bat berma dezakeen ikastetxearen aukera askearen alternatiba?, nola eragin diote eskola publikoari 1992ko Eskola Itunak eta 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legeak, eta zein dira atera ditzakegun ikaskuntzak?

Ondoren, Lucas Gortazar hezkuntzan aditua, Carlos Angulo (Gasteizko udal-kontseilua), Aina Tarabini (UAB) eta Daniel Innerarity aritu ziren.

Caros Angulo, **Gasteizko Udaleko** teknikaria, galdera hauek erantzun zituen: zer eginkizun bete behar dute udalerriek ikaskuntza ez-formaleko eta informaleko jarduerak antolatzen laguntzeko, ikasle guztiek eskolatik kanpo ikasten jarrai dezaketela bermatzeko? Era berean, herritarrak sentsibilizatzeko proposamenak egingo ditu, interes kolektiboak partikularren aurretik jartzeko.

Lucas Gortazar, hezkuntza eta gizarte politiken arloan aditua, euskal hezkuntza sistemaren indargune eta ahuleziez aritu da zen, kanpo ebaluazioen eta beste aldagai batzuen emaitzetatik abiatuta. Galdera hauek ere erantzun zituen: txosten eta ebaluazio horiek guztiek zer eginkizun dute hezkuntzaren hobekuntzan?, zer hezkuntza-erronka dituzte planteatuta Europako hezkuntza-sistemek gizarte-erronkak lortzen laguntzeko eta gizarte-eraldaketan laguntzeko?

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan soziologian doktore den Aina Tarabinik honako gai hauek jorratuko zituen: gizarteratzea eta laneratzea, zaurgarritasuna eta eskola-arrakasta, eta ekitatearen arriskuak, besteak beste, hezkuntza-sistema batek inor atzean ez uzteko printzipio eta gakoez arituko zen. Daniel Innerarity filosofia politikoko katedraduna, **Ikerbasque** ikertzailea **Euskal Herriko Unibertsitatean**, **Gobernantza Demokratikoaren Institutuko** zuzendaria eta **Florentziako Europako Institutuko** irakaslea da. Ezagutzaz baino gehiago, ezjakintasunaren gizartea dela dirudien gizarte batean hezteak zer esan nahi duen azaldu zuen. Besteak beste, kontzeptu hauen inguruan mintzatu zen: erreflexibitatea, ziurgabetasuna, ahanztura, interpretazioa, sormena, autonomia, zehaztasunik eza, gaitasunik eza eta erabilgarritasunik eza.

Arratsaldeko saioa familiei zuzenduta egongo zen, goizeko eztabaiden laburpen bate gin ondoren "Otra educación es posible" hitzaldia eskaini zuen **Euskal Eskola Publikoa Gaur Bihar** behatokiak. Amaitzeko, eztabaida irekia egon zen.

Jardunaldiak jarraitzeko aukera ez bazenuen izan edota bideoak berriro ikus nahi badituzu, idatzi **heize@heize.eus** helbidera bideoak ikusteko aukera ematea eskatuz.